

MAHAI SEKTORIALA

1. ESPEZIALITATE BERRIAK ESKURATZEA.

Laster argitaratuko da deialdia. Aurrekoaren arabera, berritasun nagusia da Lehen Hezkuntzako espezialitatea kidego berean 3 urteko esperientzia erakutsiz eskuratuko dela.

2. LEKUALDATZE LEHIAKETA.

Ikasturte honetan autonomikoa izanen da, aurrekoaren deialdi berdinarekin bidez. Beste urte batzuetan bezala, maila estataleko deialdiarekin aldea da ez dagoela behin betiko destinoan 2 urtez egoteko betebeharririk. Merituen baremoan ez dira kontuan hartuko Hizkuntza Eskola Ofizialetan lortu ez diren hizkuntza titulazioak.

3. MAISU-MAISTREN KIDEGOAREN LEP 2022.

Departamentuak hurrengo deialdirako proposamena aurkeztu digu, baina ez da argitaratuko Estatuko Gobernuak irakasleen kidegoetan sartzeko araudi berria argitaratu arte, aurreko sarrera-sistemarekin alderatuta funtsezko aldaketak egon daitezkeelakoan (proba ez baztergarriak, egiturazko lanpostuetan lan egindako urte kopuruaren araberrako salbuespena, atzerriko hizkuntza profilen eskakizuna... edo gerta daitekeen edozein aldaketa). **Beraz, Estatuko legeria urgentziaz argitaratzen bada eta langileak prestatzeko denbora nahikoa badago, hurrengo ikasturtera arte itzarongo da.** Hauek dira lanpostu kopuruak eta espezialitateak:

ESPEZIALITATEA	HIZKUNTZA	PLAZA KOPURUA
Haur Hezkuntza	G	33
	E	19
Lehen Hezkuntza	G	180
	E	68
Atzerriko Hizkuntza (ingeleza)	E	12
Pedagogia Terapeutikoa	G	82
Entzumena eta Lengoaia	G	35
	E	9
Euskera	E	13
GUZTIRA		451

- Ez dira Musikako eta Gorputz Hezkuntzako lanpostuak; ezta PTkoak euskaraz, ezta ere Ingelesekoak gaztelaniaz.

- Abian jarraitzen duten deialdiak: iaz argitaratutako Lanbide Heziketako irakasle teknikoenak eta urte hasierako Irakaskuntza Ertainetako Kidegoarenak dira.

Datu horiek berresten dute **PAIk lan prekarietatea eragiten duela, eta programa horrek aurrera egiten duen bitartean, irakasle asko egonkortzerik ez dela egonen**. Gainera, Gil Sevillano zuzendari nagusiarekin bilera bat egiteko eskatu dugu, irakasleen plantilletan izan daitezkeen aldaketak batera lantzeko, 2021eko Bigarren Hezkuntzako EPEko erreklamazio eta gora jotzeko errekurtsio kopuru handiari buruzko hausnarketa egiteko, NUHEOko (EOIDNAko) langileen lan zamari buruzko gaiak argitzeko eta Nafarroako Prestakuntza Kontseiluaren bilera deitzeko.

PAIk eragozten du irakasle on egonkortasuna!